



ATEZ ATEKO GAIKAKO BILKETAREN GIDA



Lezoko Unibertsitateko Udala

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
ATEZ ATEKO BILKETA	4
Materia organikoa	5
Ontzi arinak	6
Papera eta kartoia	8
Beira	9
Errefusa	10
Gainerako materialak	11
ATEZ ATEKO SISTEMAREN FUNTZIONAMENDUA	14
MATERIA ORGANIKOA KONPOSTATZEA	16
OHIKO GALDERAK	17
ZER NON; HONDAKINAK EGOKI SAILKATZEKO HIZTEGIA	20
MAPA	34

INFORMAZIO GEHIAGO

943 52 15 38

atezate@lezo.net

www.lezo.net/hondakinak



AURKEZPENA

“Lezoko Udalak eredugarri izan nahi du ingurumen politikan. Iraunkor eta ardura irizpideak lehenetsiz, Gobernu Batzordeak hondakinen atez ateko gaikako bilketa sistema eraginkorrenaren aldeko apustua egin du.

Sinesten dugu, herritar bakoitzak egiten duten keinu txiki bakoitzetik asko dugula hobetu eta irabazteko. Eta Lezoko Udala, Lezoko herria, ongizate iraunkorraren bidean bere keinua egitera dator. Zero zabor politiken bidez, gauzak ondo egitera goaz; ingurumenak eta belaunaldi berriek merezi dute.”

Birziklatzea ardatz hartuta, badugu konponbidea

Egungo hondakinen bilketa sistemak ez du bermatzen hondakin atal guztiak bereizita biltzerik. Gaur egun, Lezoko birziklatze tasa %27,82koa da.

Sortzen den zabor gehiena gai organikoa da. Gutxi gora behera, zaborraren %40 inguru. Hondakinak kudeatzeko garaietan, garrantzitsua da oso janari hondarrak bereizita biltzea, gainerako atalekin egiten den bezalaxe. Modu horretan, arazoaren zatirik handiena saihestuko litzateke. Materia organikoa bereizita bilduz gero, janari hondarra konpost bihurtzen da lurra ongarritzeko edo/eta lorezaintzarako.

Ez dugu legea betetzen

Espainiar estatuko hondakinen legeak dionenez, jada 2001az geroztik jaso behar da materia organikoa modu selektiboan. Zergatik orain arte ez da horrelakorik egin? Egin daiteke eta legez egin behar da. Lezoarrok egitera goaz.

Denon artean, konponbidea

Birziklatzea ardatz hartuta, badugu konponbidea. Atez ateko gaikako bilketa sistemarekin hondakinen %80 birziklatzera iritsi gaitezke. Zergatik jarraituko dugu sortzen dugun zaborraren %27,82 birziklatzen, atez ateko sistemarekin %80 birziklatzera iritsi bagaitezke?

Hondakinen arazoari irtenbidea emateko hondakinak biltzeko sistema aldatzea erabaki du Lezoko Udalak. Udalak Lezo herri iraunkor egiteko, %80ko birziklatzea lortzeko, herritarrekin egin nahi izan du bidea eta denon artean diseinatu da behin-betiko atez ateko bilketa sistema.

ATEZ ATEKO BILKETA

Atez ateko gaikako bilketa

Atez Atekoa munduan zehar aspaldidanik martxan dagoen bilketa eredu bat da. Moldagarria, gainera: tokian tokiko errealitatera egokitzea ahalbidetzen duen sistema irekia da.

Hondakinak kudeatzeko modurik zentzudunena eta eraginkorrena da osasun, ingurumen ekonomia arloei dagokionez.

Zer da atez ateko gaikako bilketa?

Hondakin atalak bereiztuz, hondakinak nahastu gabe jasotzen diren bilketa sistema da atez atekoa. Hondakin atal bakoitza asteko egun jakin batean edo batzuetan jasotzen da etxe-atarietan, tabernetan, jatetxeetan, dendetan, elkarte gastronomikoetan...

5 hondakin atal, 5 kolore

Atez ateko gaikako bilketan bost hondakin atal bereizten dira: materia organikoa, ontzi arinak, papera eta kartoia, beira eta errefusa. Hondakin atal bakoitzak bere kolore bereizgarria du:



MATERIA ORGANIKOA



Zer da materia organikoa?

- Animalia-jatorriko janarien hondarrak, sukaldatuak zein gordinak.
- Landare-jatorriko janarien hondarrak, sukaldatuak zein gordinak.
- Materia organikoz (janari hondarrez edo landare-olioz, esaterako) zikindutako paperezko oihalak, sukaldeko papera eta paperezko mahai-zapiak, eta mukizapi erabiliak.
- Kafe-hondarrak eta infusio-poltsak.
- Marisko-oskolak, eta fruitu lehorren eta arrautzen azalak.
- Fruituen eta animalien hezurak, baita arrainenak ere.
- Loreak eta landareak.
- Belarra (kantitate txikian, hobe da autokonposta egitea).
- Txotxak, pospoloak, zerrautsa (kantitate txikian), eta kortxo naturalezko tapoiak.
- Tratatu gabeko egurraren errauts hotza (kantitate txikian).

Usain txarrak saihesteko, kubo marroia etxean den artean beti irekita uztea gomendatzen da. Horrela, hezetasunak ihes egiten du eta janariak ez dira usteltzen. Arrainak usain txarrik bota ez dezan, sukaldeko paperean bil daiteke.

Zer egiten da materia organikoarekin?

Bildutako guztia inausitako adarrekin nahasten da konpostatze plantan eta, tratamendu egokiaren ondoren, kalitatezko konposta (landare-lurra) lortzen da. Konpost hori ongarrri gisa erabiltzen da lorezaintzan, nekazaritzan eta arbolazaintzan.

Atal organikoan sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Animalien gorotzak, errefusa.
- Kortxo sintetikoazko tapoiak, ontzi arinak.
- Konposta ezin diren pixoihalak, errefusa.
- Zigarrokinak, errefusa.
- Erratzarekin jasotako hautsa, errefusa.
- Trataturako egurraren errauts hotza, errefusa.



ONTZI ARINAK

Zer dira ontzi arinak?

- Aluminiozko edo burdinazko edari eta kontserba latak.
- Tetrabrick-ak.
- Edari eta elikagaien plastikozko botilak.
- Etxea garbitzeko produktuen plastikozko botila eta ontziak.
- Polistireno hedatuzko (porexpana) elikagai-erretiluak.
- Aluminiozko elikagai-erretiluak eta elikagaietarako aluminiozko gainerako materialak.
- Jogurten eta postreen plastikozko ontziak eta haien tapak.
- Beirazko ontzien metalezko tapak.
- Hortzetako pastaren tuboak eta kosmetikako plastikozko ontziak.
- Izoztutako elikagaien poltsak eta, oro har, plastikozko poltsa guztiak, baita plastikozko elikagai-gilma ere.
- Paper plastifikatua.
- Botilen txapak.



ONTZI ARINAK



Ontziak trinkotu itzazu

Ontziek leku gutxiago hartzea nahi baduzu, gogoratu zaitez tetrabrick-ak, ur botilak, jogurt poteak eta edari latak trinkotzeaz.

Nahi izanez gero, garbitu ontziak

Poteak eta gainerako ontziak garbitzea gomendatzen da, horrela hobeto birziklatuko baitira, eta gainera, ez dute usain txarrik botako. Ez da beharrezkoa plastikozko eta beirazko ontzietan kentzea.

Nora eramaten dira ontzi arinak?

Biltzen diren ontziak Sanmarko Mankomunitateak Urnietan duen ontzien bereizte-plantara eramaten dira.

Zer egiten da ontziekin?

- Biltzen den guztia mekanikoki bereizten da eta, materialaren arabera, plastikozko poltsak, hiri altzariak (bankuak edo seinaleak, esaterako) elikagaienezako erabili ezin daitezkeen ontziak, papera... egiteko erabiltzen dira.
- Burdinezko eta aluminiozko ontziak txapak, giltzak eta metalezko zein aluminiozko objektuak egiteko erabiltzen dira.
- Altzariak, kutxak... egiteko ere erabiltzen dira ontziak.

Ontzien atalean sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Erabilitako pintura latak, garbigunera,
- Erabilitako disolbatzaile lanak eta botilak, garbigunera.
- Botiken ontziak, farmaziara.
- Plastikozko jostailuak, garbigunera.





PAPERERA ETA KARTOIA

Zer sartzen da paperaren eta kartoiaren atalean?

- Egunkariak, aldizkariak publizitateko esku-orriak; zuri-beltzean zein koloretan inprimatuak.
- Gutun-azalak, orriak, paper jarraitua eta bulegoko paperezko gainerako materialak.
- Erabili eta botatzeko ostalaritzako paperezko erretiluak, platerak eta edalontziak.
- Zapiak eta mahai-zapi garbiak.
- Kartoizko kutxak.
- Kartoizko arrautza-ontziak, jogurt-ontzien paperezko bilgarriak eta komuneko paperaren kartoizko zilindroak.
- Kartoizko bilgarriak eta babesgarriak.

Zer egiten da paperarekin eta kartoiarekin?

Bildutako guztia, Martutenera, Despanorsak duen biltegiara eramaten da. Bertan, sailkatu ondoren, paper-fabriketara bidaltzen da prentsarako papera, gutun-azalak, orriak, kutxak... egiteko.

Paper eta kartoiaren atalean sartzen ez diren materialak, eta nora

- Materia ez organikoz zikindutako papera, errefusa.
- Materia organikoz zikindutako paperezko zapiak, sukaldeko papera eta paperezko mahai zapiak, eta paperezko mukizapiak, materia organikoa.
- Plastifikatutako papera, ontzi arina.
- Klipak eta grapak, errefusa. Kantitate handian, garbigunera.



BEIRA



Zer sartzen da beiraren atalean?

- Kolore guztietako beirazko botilak.
- Kolore guztietako beirazko kontserba-poteak.
- Kosmetika produktuen beirazko ontziak.
- Botila hautsiak.

Zer egiten da beirarekin?

Beira guztia Ecodrio enpresak biltzen du. Bertan, tapoiak eta botila-lepoak bereizten dira, baita kalitatearen araberako beira-motak ere. Gero, Laudion bertan, urtzen da material guztia berriro ontziak egin ahal izateko.

Beiraren atalean sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Kortxo naturalezko tapoiak, materia organikoa.
- Kortxo sintetikoetako tapoiak, ontzi arinak.
- Beirazko ontzietako metalezko tapak, ontzi arinak.
- Plastikozko tapak eta tapoiak, ontzi arinak.





ERREFUSA

Zer da errefusa?

Errefusaren atalean sartzen dira gaur egun birziklatzeko zirkuitu bereizirik ez duten materialak. Hala nola;

- Zeramikazko eta kristalezko katilu eta plater hautsiak.
- Erratzarekin bildutako hautsa, xurgagailuaren poltsak eta zigarrokinak.
- Ileak, azkazalak, makillajea kentzeko kotoia, hortzetako haria, depilatzeko argizaria, bizar-aitzurak, belarriak garbitzeko kotoitxoak, preserbatiboak, etab.
- Birziklatu eta berrerabili ezin daitezkeen pixohialak, konpresak eta tanpoiak.
- Biberoiak, tetinak, txupeteak eta edoskitze-diskoak.
- Trataturako egurraren errauts hotzak.
- Idazmahaiako material gastatua.
- Animalien gorotzak eta katuentzako lurra.
- Sendaketa-hondarrak, eskaparatuak, gazak eta tiritak.
- Uraren iragazkietako ikatz aktiboa.
- Erabilitako kreditu-txartelak eta supiztekoak
- Pertxak, kantitate txikian (etxeko erabileran). Kantitate handian, garbigunera.
- Bideo-zintak eta kaseteak.

Pixohialak eta konpresak egunero-egunero jasotzen dira

Pixohialak eta konpresak egunero jasotzen dira. Eskegilekuan uzten dira errafiazko poltsa grisean sartuta.

Errefusaren atalean sartzen ez diren materialak, eta nora bota behar diren

- Disolbatzaile eta pintura hondarrak, garbigunera.
- Etxe tresna txikiak, garbigunera.
- Pilak eta metatzaileak, garbigunera edo pilak jasotzeko gunera.
- Tamaina handiko gauzak eta traste zaharrak, garbigunera.
- Bonbilla goriak, fluoreszenteak eta kontsumo baxuko bonbillak, garbigunera.
- Inausketa-adarrak, garbigunera.
- Olio mineralez, pinturaz edo disolbatzailez zikindutako trapuak, garbigunera.
- Plastikozko jostailuak, garbigunera.

GAINERAKO MATERIALAK

GARBIGUNEA

Garbigunea etxean sortutako hondakinak gaika jasotzeko gunea da. **Zerbitzua doakoa da.**

Atez ateko bilketa sistematik kanpo geratzen diren hondakinak jasotzen dira bertan, hala nola, obra-hondakinak, etxe-tresna elektrikoak, koltxoiak, inausketa-adarrak, pneumatikoak, etab. Tamaina handiko bestelako gauzak ere eraman ahalko dira bertara.

Lezoarrek San Marko Mankomunitateak kudeatutako garbigune guztiak erabili ditzakete. Lezotik gertuen gelditzen dena Oiartzungo garbigunea da.

Oiartzungo Garbigunea

NON: Talaia industriagunea.

ORDUTEGIA: Astelehenetik larunbatera 10:00 - 13:00

Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 17:00 - 20:00



GARBIGUNEA

Hauek dira Garbigunean onartuko diren hondakin motak:

- Etxeko obra txikien ondorioz sortutako eraikuntza-hondakinak eta hondarrak
- Plastiko birziklagarriak: polietilenoazko bidoiak, film plastikoa, porexa ...
- Birziklagarriak ez diren plastikoak: pertsianak...
- Tamaina handiko etxeko tresnak: koltxoiak, sofak, somierrak...
- Metalak eta txatarra
- Kimaketa eta lorezaintza hondarrak
- Egurrak: paletak, altzariak, kaxak, oholta...
- Beira laua: kristala...
- Kartoizko bilgarriak
- Etxeko papera eta kartoia
- Etxeko ontziak: plastikozkoak, metalezkoak, brickak...
- Beirazko ontziak
- Ehunak
- Auto eta motorren pneumatikoak, hagin eta metalezko zatietatik bereziak. Erabiltzaileko, gehienez, bost unitate eraman daitezke.



- Aparatu elektriko eta elektronikoak: ordenagailuak, telebistak, irriatiak, telefonoak...
- Lerro zuriko etxetresna elektrikoak: garbigailuak, hozgailuak, mikrouhinak...
- Jostailuak
- Sukalde-olio erabilia (ontzi itxietan)
- Automobilgintzako olio erabilia (ontzi itxietan). Kopuru onargarria 25 litrokoa da pertsonako eta hilabeteko.
- Metagailuak: auto-bateriak eta metagailuak orokorrean
- Fluoreszenteak eta lanparak
- Pilak
- Inprimagailuetako toner-karkasak
- CDak eta DVDak
- Sukalde-olio erabilia (ontzi itxietan)
- Etxeko hondakin arriskutsuen hondarrak: pintura-ontziak (itxiak), bernizak, disolbatzaileak, itsasgarriak, fitosanitarioak, aerosolak...

BILKETA BEREZIA

Altzariak eta tamaina handiko etxeko gailuak:

NON: kaleko edukiontzien ondoan utzi behar dira mota horietako hondakinak.

NOIZ: asteazken gauean atera behar dira.

Landare-olio erabilia, etxeko hondakin arriskutsuak eta etxetresna elektriko txikiak:

Garbigunera edota San Markos Mankomunitateko kamioira eraman daitezke.

***San Marko Mankomunitateko kamioia Lezon:**

NON: Pikukale

NOIZ: Hileko 1. ostegunean 9:00 – 13:00

Hileko azken ostegunean 16:00 – 19:30



Zer jasotzen da:

- Sukaldeko olioak.
- Pintura, bernizak, disolbatzaileak, kolak...
- Lanparak eta fluoreszenteak.
- Etxetresna elektriko txikiak.
- Telefono mugikorrak.
- Garbiketarako produktu kimikoak.
- Termometroak.
- Informatikako materiala: monitoreak, teklatuak...
- Pilak eta bateriak.
- Aerosol toxikoak: intsektizidak, lakak... (beraien ontzi hutsak ere bai).
- Automobiletako olioak, bateriak, iragazkiak, izotz-kontrakoak...
- Kamerak eta argazkilaritza-materiala.
- Erradiografiak.
- Herbizidak eta intsektizidak.
- Inprimagailuetako kartutxoak eta tonerrak.
- Jostailu elektriko eta elektronikoak.
- CDak, DVDak....



Zergatik hondakinak kamioira eraman?

Hondakinak baimendutako kudeatzaileen esku uzten dira, behar den moduan kudea ditzaten. Horrela, osagai toxikoek ez dute ingurumena kutsatuko, zabortegi kontrolatuan tratatu beharreko hondakinen kantitatea murriztu egiten da eta horiek birziklatzeari esker, lehengaiak aurrezten dira. Olioak bildu ostean, biodieselak egiteko erabiltzen da.

ATEZ ATEKO BILKETAREN FUNTZIONAMENDUA

Kaleko edukiontziak

Atez ateko gaikako bilketan bost hondakin atal bereizten dira. Edukiontziak kaletik desagertuko dira, beira biltzeko igluak izan ezik. Gainontzeko lau hondakin atalak atez ate bilduko dira.

Hondakin atal bakoitza era batera ateratzen da:

- **Materia organikoa:** kubo marroian, zintzilikatzekoan.
- **Ontzi arinak:** errafiazko poltsa horian, zintzilikatzekoan.
- **Papera eta kartoia:** errafiazko poltsa urdinean, zintzilikatzekoan.
- **Errefusa:** poltsa biodegradagarrietan eta pixoihalak eta konpresak egunero errafiazko poltsa grisetan.
- **Beira:** orain arte bezala, kaleko igluetan.

Bilketa ordutegia: 20:00 - 07:00*

Asteko egutegia:

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
						
ORGANIKOA	ONTZI ARINAK	PAPERA, KARTOIA	ORGANIKOA	ONTZI ARINAK	ORGANIKOA	ERREFUSA

Pixoihalak eta konpresak egunero

Ekarpen eta larrialdi guneak:

Finkatutako egutegira edo ordutegira egokitzeko arazoak dituzten herritarrek hondakin mota guztiak gaika jasotzeko espresuki prestatutako gune hauetara joateko aukera izango dute. Gune itxiak izango dira, eta txartel / giltza elektronikoko bidez sartu ahal izango da bertara.

Kokapena

- Kioskoa
- Jauregalde
- Lopene-Pisbe
- Altzate auzo elkarte
- Errekalde

Landa-eremua:

Landa eremuko bilketa, herri eremuan bezalaxe egingo da. Bilketa kamioiaren ibilbidetik kanpo gelditzen diren herritarrei, ekarpen eremuetako giltza emango zaie, zaborra han utzi dezaten.

Merkatari eta ostalarientzako bilketa

Etxeko zerbitzua izango dute oinarri. Izango duten zerbitzu gehigarria larrialdi eta ekarpen guneetako izango da: aparteko ekarpenak egin behar izan ezkeru, giltza emango zaie aipatu guneetara hondakinak eraman ditzaten.

Etxeko bilketaren funtzionamendu bera izango dute; hondakin atal guztiak denda, taberna, jatetxe... atarian jasoko dira. Hori materia organikoa, papera eta kartoia, ontzi arinak eta errefusari dagokionez. Gainontzeko hondakin atalen bilketa zerbitzuak orain arte bezalaxe jarraituko du.

Udalak merkatari edo ostalari bakoitzaren beharren arabera edukiontzia banatuko ditu. Tamaina ezberdinetako edukiontzi horiek doan banatuko ditu Udalak.

Materia organikoa poltsa konpostagarriarekin edo gabe jasoko da. Kartoia, tolestuta, paperaren edukiontzia alban uzteko aukera izango da edukiontzian lekuri ez izanez gero. Merkatari edo ostalari bakoitza arduratuko da bere edukiontzia txukun mantentzeaz.

Kaleko zakarrontziak:

Kaleko zakarrontziak mantendu egingo dira, baina atez ateko bilketara egokituta: atal ezberdinetan banatuko dira, hondakinak gaika bildu ahal izateko.

Zakarrontziak multzokatuta kokatuko dira herrian zehar, multzo bakoitzean lau hondakin atalenzako zakarrontziak egongo direlako. Gainontzeko bilketa sistemako irizpide arabera egingo da lekuan- lekuko zakarrontzien kokapena.



* ordutegia alda daiteke herriko jaietan edo/eta antzeko egoeretan.

MATERIA ORGANIKOA KONPOSTATZEA



Konpostatzea materia organikoa ongarri bihurtzea da. Prozesu honetan janari-hondarrak lur emankor bihurtzen dira. Prozesu motela da, baina %100 naturala.

Konpostatzea oreka ekologikoa berreskuratzeko modu bat ere bada. Ekosistema lehen kendu zaizkion elikagaiak berreskuratzeko gai denean, ziklo naturalak berrabiarazten dira. Konpostatzen dugunean lurrari bere elikagaiak itzultzen dizkiogu.

Autokonpostatzea erraza da

Zabortegei nahi errauskailuetan arazo gehien ematen duen hondakina txerrijana da, hau da, janari-hondarrak, atal organikoa. Zabortegetan hondakin organikoak usteldu egiten dira eta errauskailuetan ez dira ondo erretzen. Eta, aldiz, sailkatua datorrenean ongien birziklatzen den atala da. Hain erraza izanik, etxean ere egin daiteke. Ereku txiki bat eta mimo pittin bat besterik ez da behar.

Sail txiki bat duen edozein familia edo komunitatek eman dezake izena konpostatzeko. Izena emandakoei Lezoko Udalak, doan, konpostatzeko kutxa, ikastaroa eta udal aholkularitza teknika eskaintzen dizkie.

Gainera, Udalak materia organiko hori jasotzera joan behar ez duenez eta tratamendu gasturik ere ez duenez, autokonpostatzen duten familiek hondakinen tasan %40ko hobaria izango dute.

OHIKO GALDERAK

Kubo eta poltsa doan izango dira?

Bai, guztiz doan. Kubo bakoitza identifikatuta egongo da, herritar bakoitzak berea zein den jakin dezan. Udalak hobekien dagokien kodigoa erabiliko du

5 ataletarako 5 kubo banatuko dira?

Ez. Kubo marroiak bakarrik banatuko dira, eta materia organikoa biltzeko soilik izango dira. Udalak familia bakoitzari 10l-ko bina kubo marroi emango dizkio, doan.

Gainerako hondakin atalak errafiazko eta poltsa biodegradagarrietan aterako dira.:

- Urdina; papera +kartoia (Udalak banatuko du)
- Horia; ontzi arinak (Udalak banatuko du)
- Grisa; Fardelak, konpresak (Udalak banatuko du) eta errefusa poltsa biodegradagarriak (Udalak banatuko ditu hasieran, gero herriko dendetan egongo dira salgai)

Kubo/poltsaren bila etxeko ateraino etorriko al dira?

Ez. Poltsak eta kubo marroia eskegi- lekuan utzi beharko dira. Herritar bakoitzak berari dagokio lekuan zintzilikatu beharko du kubo edo poltsa. Zintzilikatzekoak ez dira atari barruetan jarriko.

Eta zer gertatzen da beirarekin?

Orain arte bezala, beirarentzako iglu berdeetara botako dira botilak eta beirazko ontziak. Beira biltzeko iglu gehiago jarriko dira.

Eta hondakinak ordutegi horretan ateratzerik ez dutenek?

Horretarako dago larrialdi-gunea, bilketa ordutegira eta egutegira egokitze arazoak dituzten pertsonentzat. Gune horretara asteko edozein egunetan eta eguneko edozein ordutan eraman ahal izango dira atal desberdinetako hondakinak.

Zer gertatzen da egun batean tokatzen ez den atala ateratzen bada?

Ez da poltsa edo kubo jasoko, zintzilikatzekoan geratuko da. Informazio bulegoko teknikariak arduratuko dira herritarrei sistemak nola funtzionatzen duen azaltzeaz.



Nola jokatu du Udalak hutsegite baten aurrean?

Bilketako langileek, egun bakoitzean, dagokion atala bilduko dute. Esaterako, materia organikoa biltzea tokatzen den egunean paper-poltsa bat egonez gero, ez dute papera bilduko eta akatsaren berri emango dute.

Kuboa nahi dudanean ateratzerik izango dut?

Ez. Adostutako egun eta ordutegian atera behar da. Kubo marroia materia organikoarekin soilik erabiliko da.

Eta norbaitek kuboa ordutegiz kanpo ateratzen badu?

Norbaitek hondakinak bilketa-kamioia pasa ostean ateratzen baditu, ez dira jasoko. Horrelako akatsen aurrean, informazio bulegoko teknikariak arduratuko dira herritarrei ordutegia zein den eta sistemak nola funtzionatzen duen azaltzeaz.



Eta norbaitek ordutegia edo egutegia ez betetzen jarraitzen badu?

Ordenantzaren arabera, ordutegia eta egutegia behin eta berriz haustea zigorgarria da.

Organikoak usain txarra izango du?

Kubo marroiaren behealdean sukaldeko paper xurgatzaile bat jartzen badugu azpialdean pilatzen den eta usain txarra sortzen duen hezetasuna saihestuko dugu. Materia organikoa, poltsa konpostagarrian ere jasotzeko aukera izango da (beti ere, kubo marroiaren barruan joan beharko du poltsak).

Bestalde, arrain-buruak eta antzeko hondakinak paper xurgatzailean bil daitezke usaina gutxitzeko.

Etxean den artean kubo bat beti zabalik izatea gomendatzen da, aireztatzeko eta hondakinak ez usteltzeko.

Norbaitek gure poltsak begiratu edo arakatuko ditu?

Ez. Bilatzaileak poltsa eustea nahikoa du bereizketa egoki egin den ala ez ohartzeko.

Konposta egiteak usain txarra sortzen du?

Ez du usain txarrik sortu behar. Usain txarra tratamendu eskasaren adierazle da. Usain txarra badu, informazio bulegora jotzea aholkatzen da. Teknikari batek behar beste azalpen emango dizu edo bestela zure etxera joango da arazoa konpontzeko.

Konposta baratzean erabil daiteke?

Baratzerako, lore-ontzietarako, zuhaitzetarako... erabiltzen da, kalitateko ongarri gisa. Landareek eskertzen dute eta gure osasunak ere eskertuko du. Kalitatea materia organikoaren garbitasunaren eta tratamendu egokiaren arabera da. Ikastaroa erraza eta oso praktikoa da. Konposta egiten ikasteko ikastaroak urtean zehar hainbatetan errepikatuko dira. Udalak konposta kaxak doan banatzen ditu eta aholkularitza teknikoa ere eskaintzen du.

Autokonpstatzen badugu hondakinen tasan gutxiago ordainduko dugu?






Bai. Autokonposta egiten duten guztiak zerrenda batean egongo dira eta dagokien hobaria aplikatuko zaie, %40koa. Izan ere, beraien materia organikoaz arduratzen diren familiei janari hondarrak biltzen eta tratatzen ez du gasturik izango Udalak.


ZER NON




Hondakinak
egoki
sailkatzeko
hiztegia

Atal honetan hondakinak egoki sailkatu eta birziklatzeko irizpide orokorrak dituzu. Hemen esandakoak gogoan hartuz gero, oso gutxitan izango dituzu zalantzak hondakinak sailkatu eta birziklatzeko garaian..

-  Papera eta kartoia
-  Ontzi arinak
-  Beira
-  Materia organikoa
-  Errefusa

 **Puntu Berdea** du izena ikur honek. Bereizgarri hau duten hondakinak birziklagarriak dira. Papera/kartoiak, ontzi arinek eta beirak izan dezakete ikur hau.

 **Sigre**ren ikurra da hau. Bereizgarri hau duten hondakinak birziklagarriak dira eta botikara eraman behar dira.

Egunerokoan edo noizean behin erabiltzen diren hainbat produktu arriskutsuak dira. Ondorengo zerrendako ikurrak dituzten eta **“Puntu Berdea” ez duten** hondakinak garbigunera eraman behar dira.



Toxikoa

T



Oso toxikoa

T+



Suharbera

F



Oso suharbera

F+



Errekaria

O



Korrosiboa

C



Kaltegarria

Xn



Narritagarria

Xi



Lehegarria

E



Ingurumenerako
Arriskutsua

A



- Abanikoa:** errefusa.
- Adreilua:** garbigunera*.
- Adur-zapia:** oihalen kontenedorera.
- Aerosola (ontzia):** ontzi arina.
- Agenda:** papera/kartoia.
- Aire-freskagarriaren ordezeko pieza:**
ontzi arina.
- Alanbrea:** garbigunera*.
- Albuma:** argazkiena, errefusa.
Pegatina-bildumena, papera/kartoia.
- Aldizkari-gordetzekoa:** garbigunera*.
- Aldizkaria:** papera/kartoia.
- Alfonbra:** txikia bada, errefusa.
Handia bada, garbigunera*.
- Algak:** materia organikoa.
- Aliketak:** garbigunera*.
- Alkandora:** oihalen kontenedorera.
- Altzairua:** garbigunera*.
- Altzariak:** garbigunera*.
- Aluminiozko erretilua (jakiena):**
ontzi arina.
- Aluminiozko papera:** ontzi arina.
- Azetatoa:** errefusa.
- Alpistea:** materia organikoa.
- Amua:** errefusa.
- Animalia-gorotza:** errefusa.
- Animalia hilak:** Foru Aldundiaren bilketa
zerbitzua.
- Antena:** errefusa.
- Antibiotikoak:** botikara.
- Antifaza:** paperezkoa, papera/kartoia.
Plastikozkoa edo igel-tsuzkoa, errefusa.
Telazkoa, oihalen kontenedorera.
- Apalak:** garbigunera*.
- Aparatu elektrikoak:** garbigunera*.
- Aparatu elektronikoak:** garbigunera*.
- Aparatu informatikoak:** garbigunera*.
- Apunteak:** papera/kartoia.

- Arantza:** materia organikoa.
- Arbela:** garbigunera*.
- Ardo-upela:** garbigunera*.
- Argazki-filma:** garbigunera*.
- Argazki-kamera:** garbigunera*.
- Argazkia:** errefusa.
- Argizaria:** errefusa.
- Arkatz-muturra:** errefusa.
- Arkatz-ontzia:** errefusa.
- Arkatza:** errefusa.
- Armairua:** garbigunera*.
- Arrain-ezkata:** materia organikoa.
- Arrain-hezurra:** materia organikoa.
- Arraina:** materia organikoa.
- Arrainontzia:** garbigunera*.
- Arrautza-azala:** materia organikoa.
- Arrautza-ontzia:** paperezkoa,
papera/kartoia.
Plastikozkoa, ontzi arina.
- Arropa eta osagarriak:** oihalen
kontenedorera.
- Arropa zabaltzekoa:** garbigunera*.
- Arropa zintzilikatzeoko pintza:** errefusa.
- Artxibagailua:** papera/kartoia.

B



- Babybel gazta (bilgarrria):** errefusa.
- Baflea:** garbigunera*.
- Bainu-bata:** oihalen kontenedorera.
- Bainujantzia:** oihalen kontenedorera.
- Bainuontzia:** garbigunera*.
- Bainurako txapela:** errefusa.
- Baldosa:** garbigunera*.
- Baloia:** garbigunera*.
- Barazkia:** materia organikoa.
- Barruko arropa:** oihalen kontenedorera.

Baskula: garbigunera*.
Bastoi: garbigunera*.
Bata: oihalen kontenedorera.
Baxera: aluminiozkoa, garbigunera*.
Zeramikazkoa eta krista-lezkoa, errefusa.
Beira (ontziak): iglu berdera.
Belakia: errefusa.
Belarra: kantitate txikian, materia organikoa.
Kantitate handian, garbigunera*.
Belarritakoak: errefusa.
Belaunetakoa: oihalen kontenedorera.
Benda: errefusa.
Berniza: garbigunera*.
Berniza-potoa: garbigunera*.
Berogailua: garbigunera*.
Berokia: oihalen kontenedorera.
Beruna: garbigunera*.
Besaulkia: garbigunera*.
Betaurrekoak: salgai izaten diren edozein dandatan utzi.
Betuna: errefusa.
Biberoia: errefusa. Orokorrean, edoskitze-produktu guztiak errefusa dira.
Bideo-aparatua: garbigunera*.
Bideo-kamera: garbigunera*.
Bideo-zinta: errefusa.
Bideta: garbigunera*.
Bidoia: garbigunera*.
Bihurkina: garbigunera*.
Bikinia: oihalen kontenedorera.
Bilgarria: paperezkoa, papera/kartoia.
Plastikozkoa, ontzi arina.
Binilo-diskoa: garbigunera*.
Biradera: garbigunera*.
Birringailua: garbigunera*.
Bisera: oihalen kontenedorera.
Bitrozeramika: garbigunera*.
Bitsadera: plastikozkoa, errefusa.
Metalezkoa, garbigunera*.
Bizar-xafla: errefusa.
Bizarra: errefusa.
Bizarra kentzekoa: garbigunera*.

Bizikleta: garbigunera*.
Bloka: papera/kartoia. Eraztunak, errefusa.
Blusa: oihalen kontenedorera.
Boligrafoa: errefusa.
Bonbilla: betikoak eta kontsumo baxukoak, garbigunera*. Salgai izaten diren edozein dandatan ere utz daitezke.
Bonbilla alogenoa: garbigunera*.
Bonbona: garbigunera*. Salgai izaten diren edozein dandatan ere utz daitezke.
Bonua: papera/kartoia.
Borragoma: errefusa.
Botika-kaxa eta tabletak: botikara.
Botika: botikara. Botiken kaxa eta ontzi guztiak ere botikara eraman behar dira.
Botikina: errefusa.
Botila-irekitzekoa: garbigunera*.
Botila-txapa: ontzi arina.
Botila: plastikozkoa, ontzi arina. Beirazkoa, iglu berdera.
Botilen dosifikagailua: botilatik bereiziz gero, ontzi arina.
Botilen pack-a: paperezkoa, papera/kartoia. Plastikozkoa, ontzi arina.
Botoia: errefusa.
Bozgorailua: garbigunera*.
Brasa hotza: errefusa.
Brick-a: ontzi arina.
Brida: errefusa.
Brontzea: garbigunera*.
Brotxa: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.
Bufanda: oihalen kontenedorera.
Bulegoko papera: papera/kartoia.
Burbuildun plastiko babesgarria: ontzi arina.
Burdina: garbigunera*.
Burukia: oihalen kontenedorera.
Butanoa (bonbona): garbigunera*. Salgai izaten diren edozein dandatan ere utz daitezke.
Buzoa: oihalen kontenedorera.



C



CD: errefusa.

CD, DVD... irakurgailua: garbigunera*.

D



Dadoa: errefusa.

Dardoa: errefusa.

Depilatzeko makina: garbigunera*.

Depilatzeko xafila: errefusa.

Depilazio-bandak: errefusa.

Depilazio-pintza: errefusa.

Desodorantea (ontzia): plastikozkoa eta aluminiozkoa, ontzi arina. Beirazkoa, iglu berdera.

Diadema: errefusa.

Diapositiba: errefusa.

Diru-zorroa: telazkoa, oihalen kontenedorera. Bestelakoak, errefusa.

Disketea: errefusa.

Disketea sartzeko aparatua: garbigunera*.

Disko gogorra: garbigunera*.

Disolbatzaile-potoa: garbigunera*.

Disolbatzailea: garbigunera*.

Domina (saria): garbigunera*.

Dortsala: papera/kartoa.

Dosierra: papera/kartoa.

Dutxa-itxitura: garbigunera*.

DVD: errefusa.

E



Edalontzi-azpikoa paperezkoa, papera/kartoa. Bestelakoak, errefusa.

Edalontzia: errefusa.

Edari-botilen tapoia: metalezkoa eta plastikozkoa, ontzi arina.

Edari-lata: ontzi arina.

Edoskitze-diskoa: errefusa. Orokorrean, edoskitze-produktu guztiak errefusa dira.

Edredoa: oihalen kontenedorera.

Egokigailua: garbigunera*.

Egunerokoa: papera/kartoa.

Egunkaria: papera/kartoa.

Egurra: garbigunera*.

Egurrezko kaxa arinak, etxebizitza-erabilerakoak: ontzi arina.

Egutegia: papera/kartoa.

Eguzki-oihala: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Eguzkitakoa: garbigunera*.

Ehizarako kartutxoak: errefusa.

Ekografia: garbigunera*.

Eltxoen aurkakoaren ordezk pieza: ontzi arina.

Eltzea: aluminiozkoa, garbigunera*. Zeramikazkoa eta kristalezkoa, errefusa.

Enbalatze-plastikoa: Kantitate txikian, ontzi arina. Kantitate handian, garbigunera*.

Enbalatze-zinta: errefusa.

Engranajea (koiperik gabe): kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Entsalada-ontzia: plastikozkoa, zeramikazkoa eta kristalezkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Entxufea: garbigunera*.

Entxufe-karkasa: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Entziklopedia: papera/kartoa.

Eraztuna: errefusa.

Eraztuna (kuadernoena...): errefusa.

Eraztuna (latena, ontziena...): ontzi arina.

Erradiografia: garbigunera*.

Erraketa: errefusa.

Erratza: errefusa. Kirtena egurrezkoa bada, garbigunera*.

Errauts hotzak: errefusa.

Erregai-potoa: garbigunera*.

Erregaia: garbigunera*.

Erretilua: kartoizkoa, papera/kartoia. Metalezkoa, garbigunera*.

Erretzeko alkohola (ontzia): ontzi arina.

Errodamendua: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Errotuladorea: errefusa.

Erruloa: errefusa.

Esekigailua: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Esekitokia: garbigunera*.

Eskaiera: garbigunera*.

Eskaiola: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Eskalapoia: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Eskuila: errefusa.

Eskuko poltsa: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Eskularruak: latexdunak, errefusa. Bestelakoak, oihalen kontenedorera.

Eskumuturrekoa: errefusa.

Eskumuturreko ordularia: garbigunera*.

Eskuorria: papera/kartoia.

Eskuzorroa: silikonazkoa, errefusa. Bestelakoak, oihalen kontenedorera.

Esparatrapua: errefusa.

Espartinak: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Espartzua: errefusa.

Espatula: errefusa.

Esterila: errefusa.

Estutxea: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*. Telazkoa, oihalen kontenedorera.

Etengailua: garbigunera*.

Etengailuen karkasa: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Etiketa (arropa): paperezkoa, papera/kartoia. Plastikozkoa, errefusa.

Ettxeko animalia hilak: albitariari.

Ettxeko animalien jana: materia organikoa.

Ettxeko zapatilak: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Ettxetresna elektrikoak: garbigunera*.

Etzaulkia: garbigunera*.

Ezpainetakoa: ontzi arina.

F



Faktura: papera/kartoia.

Faxa: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Film gardena: ontzi arina.

Flaskoa: beirazkoa, iglu berdera. Plastikozkoa, ontzi arina.

Flotagailua: errefusa.

Fluoreszentea: garbigunera*. Salgai izaten diren edozein den-datan ere utz daitezke.

Forrua: plastikozkoa, garbigunera*. Telazkoa, oihalen kontenedorera.

Fregona: errefusa. Kirtena egurrezkoa bada, garbigunera* eraman daiteke.

Fruitu eta barazkien azala: materia organikoa.

Fruitu lehorrak: materia organikoa.

Fruitu lehorren azala: materia organikoa.

Fruta: materia organikoa.

Fusiblea: garbigunera*.

G



Gabardina: oihalen kontenedorera.

Galtzak: oihalen kontenedorera.

Galtzerdiak: oihalen kontenedorera.

Garagardo-upela: metalezkoa eta 5l artekoa, ontzi arina. Beste-lakoak, garbigunera*.

Garbigailua: garbigunera*.

Garbiketa produktuen ontzia: hutsa, ontzi arina. Betea, garbi-gunera*.

Garbitasun produktuen ontzia: ontzi arina.

Garbitasun produktuen tutua: ontzi arina.

Garbitasun toallatxoa: errefusa.

Gatzontzia: metalezkoa, garbigunera*. Kristalezkoa, errefusa.

Gau-mahaia: garbigunera*.

Gaza: errefusa.

Gazta: materia organikoa.

Gazta-platera: errefusa.

Gerrikoa: oihalen kontenedorera.

Giltza: garbigunera*.

Giltza ingelesa: garbigunera*.

Giltzarrapoa: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Giltzatakooa: errefusa.

Goma: errefusa.

Gomazko tutua: garbigunera*.

Gona: oihalen kontenedorera.

Gortinak: oihalen kontenedorera.

Goxoki-bilgarria: zikina, errefusa. Garbia, materialaren baitan, papera/kartoia edo ontzi arina.

Goxoki-makila: errefusa.

Goxoki-poltsa: ontzi arina.

Goxokia: bilgarriarekin, errefusa. Bilgarririk gabe, materia orga-nikoa.

Grapa: errefusa.

Grapagailua: garbigunera*.

Guraizeak: garbigunera*.

Gurina: kantitate txikian, materia organikoa. Kantitate handian baimendutako gestore batengana jo.

Gurpil-kamera: garbigunera*.

Gurpila: tailerrera edo desegite-lekura.

Gutun-azala: papera/kartoia. Material hauskorrentzat babes-garria dutenean, paper zatia, papera/kartoia eta burbuiladun plastikoa, ontzi arina.

Gutun-irekitzekoa: metalezkoa, garbigunera*. Plastikozkoa, errefusa.

Gutuna: papera/kartoia.



Hagatxoa: errefusa.

Haragia: materia organikoa.

Haria: errefusa.

Harraska: garbigunera*.

Hautsa: errefusa.

Hautsontzia: errefusa.

Hegatsak: errefusa.

Hezurra: materia organikoa.

Hildako intsektuak: materia organikoa.

Hiztegia: papera/kartoia.

Hoditeria: garbigunera*.

Hondarra: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbi-gunera*.

Hortza: errefusa. Enpasterik ez badu, materia organikoa.

Hortzetako eskuila: errefusa.

Hortzetako haria: errefusa.

Hortzetako pastaren tutua: ontzi arina.

Hozkailua: garbigunera*.



Idazluma: errefusa.

Igeltsua: garbigunera*.

Igerilekuko txapela: errefusa. Telazkoa, oihalen kontenedorera.

Ile-lehorgailua: garbigunera*.

Ilea: errefusa. Produktu kimikorik (laka, tindagaiak...) ez badu, materia organikoa.

Ileko apaingarria/kakoa: errefusa.

Ileko eskuila: errefusa.

Ileko goma: errefusa.

Ileko plantxa: garbigunera*.

Ileordea: errefusa.

Iltzea: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Imana: garbigunera*.

Imitaziozko pitxiak: errefusa.

Inausketa: kantitate txikian, materia organikoa. Kantitate handian, garbigunera*.

Indargetzailea: garbigunera*.

Infusio-poltsa: materia organikoa.

Infusio-zakutxoa: materia organikoa.

Infusioa: materia organikoa.

Inprimagailuaren tinta-kartutxoa: garbigunera*.

Intsektizida (spray-a): hutsa, ontzi arina. Betea, garbigunera*.

Intsentsua: errefusa.

Intxaur-hauskailua: garbigunera*.

Iparrorratza: errefusa.

Ipuina: paperezkoa, papera/kartoia. Bestelakoak, errefusa.

Irabiagailua: garbigunera*.

Iragazkia: errefusa.

Iratzargailua: garbigunera*.

Irratia: garbigunera*.

Ispilua: garbigunera*.

Izara: oihalen kontenedorera.

Izotza egitekoa: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Izozki-makila: egurrezkoa, materia organikoa. Plastikozkoa, errefusa.

J



Jaka: oihalen kontenedorera.

Jakiak izozteko poltsa: ontzi arina.

Jakien bilgarria: ontzi arina.

Jakien koipea: materia organikoa.

Jakien ontzia: ontzi arina.

Jakien ontzien tapa: metalezkoa eta plastikozkoa, ontzi arina.

Jakien pack-a: paperezkoa, papera/kartoia. Plastikozkoa, ontzi arina.

Jakien poltsa: ontzi arina.

Jana (hondarrak): materia organikoa.

Jateko pasta: materia organikoa.

Jertsea: oihalen kontenedorera.

Jokurako kartak: papera/kartoia.

Jostailuak: garbigunera*.

K



Kafe-hondarrak: materia organikoa.

Kafe-kapsula: hutsa, ontzi arina. Betea, errefusa.

Kafe-makina (etxekoa): garbigunera*.

Kafea: materia organikoa.

Kaiola: garbigunera*.

Kakoa: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Kalkulagailua: garbigunera*.

Kamiseta: oihalen kontenedorera.

Kamisoia: oihalen kontenedorera.

Kanabera: errefusa.

Kandela: errefusa.

Kanila: garbigunera*.

Kapela: oihalen kontenedorera.

Kanpin-denda: garbigunera*.

Kanpin-gas kartutxoa: hutsa, garbigunera*. Salgai izaten diren edozein dendatan ere utz daitezke.

Karpeta: papera/kartoia.

Karroza-zinta: errefusa.

Kartela: papera/kartoia.

Kartulina: papera/kartoia.

Kasetea: errefusa.

Kaskoa: garbigunera*.

Kateorratza: errefusa.

Katilua: plastikozkoa eta zeramikazkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Katuentzako hondarra: errefusa.

Kaxa: kartoizkoa, papera/kartoa. Plastikozkoa, metalezkoa eta egurrezkoa, garbigunera*. Bestelakoak, errefusa.

Kazola: aluminiozkoa, garbigunera*. Zeramikazkoa eta krista-lezkoa, errefusa.

Kirol-zapatila: oihalen kontenedorera (poltza batean).

Klera: errefusa.

Klipa: errefusa.

Koaderno: papera/kartoa.

Kobrea: garbigunera*.

Koilara: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Koilaratxoa: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Koilarea: errefusa.

Kola (ontzia): ontzi arina.

Koloretea: errefusa.

Koltxoia: garbigunera*.

Kometa: garbigunera*.

Komikia: papera/kartoa.

Komuna: garbigunera*.

Komuneko eskuila: errefusa.

Komuneko papera (kartoa): papera/kartoa.

Kondoia: errefusa.

Konfetia: errefusa. Paperezkoa bada eta garbia badago, papera/kartoa.

Konketa: garbigunera*.

Konpresa: errefusa.

Kontserba-lata: ontzi arina.

Kontserba-ontzia: metalezkoa, plastikozkoa, tetrabrik-a..., ontzi arina. Beirazkoa, iglu berdera.

Kopa (saria): garbigunera*.

Kortxo-kentzekoa: garbigunera*.

Kortxo: naturala, materia organikoa. Plastikozkoa, ontzi arina.

Kosmetika produktuen ontzia: ontzi arina.

Kotoia: errefusa.

Kotoizko bastoitxoak: errefusa.

Kreditu-txartela: errefusa.

Kremailera: errefusa.

Kristala: garbigunera*.

Kromoa: paperezkoa, papera/kartoa. Plastikozkoa, errefusa.

Kupoia: papera/kartoa.

Kurrika: garbigunera*.

Kuterra: errefusa.

Kuxina: oihalen kontenedorera.



Labana: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Labea: garbigunera*.

Landare-olioa: garbigunera* edo olioa biltzen duten lekuetara.

Landarea: naturala, materia organikoa. Sintetikoa, errefusa.

Langargailua: ontzi arina.

Lanpara: garbigunera*.

Lanpasa: errefusa.

Lapikoa: aluminiozkoa, garbigunera*. Zeramikazkoa eta krista-lezkoa, errefusa.

Laranja-azala: materia organikoa.

Laranja-zorroa: ontzi arina.

Lastoa: materia organikoa.

Lata: ontzi arina.

Lata-irekitzekoa: garbigunera*.

Laten pack-a: paperezkoa, papera/kartoa. Plastikozkoa, ontzi arina.

Latex-a: errefusa.

Lauza: garbigunera*.

Legó (jokua): garbigunera*.

Lentea: garbigunera*.

Lentejuela: errefusa.

Lentilla: errefusa.

Lera: garbigunera*.

Libreta: papera/kartoa.

Lientzoa: txikia, errefusa. Handia, garbigunera*.

Limoi-azala: materia organikoa.

Limoi-zorroa: ontzi arina.

Litera: garbigunera*.

Litxarrieriak: errefusa.

Lixa: errefusa.

Lokarria: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Lokatza: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Lorategiko hondarrak: kantitate txikian, materia organikoa. Kantitate handian, garbigunera*.

Lorea: naturala, materia organikoa. Sintetikoa, errefusa.

Loreontzia: plastikozkoa, zeramikazkoa eta kristalezkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Lozakua: oihalen kontenedorera.

Lubrikatzaile-potoa: garbigunera*.

Lubrikatzailea: garbigunera*.

Luma: kantitate txikian, materia organikoa. Kantitate handian baimendutako gestore batengana jo.

Lumazko berokia: oihalen kontenedorera.

M



Mahai-tresnak: plastikozkoak, errefusa. Metalezkoak, garbigunera*.

Mahai-zapia: plastikozkoa, errefusa. Telazkoa, oihalen kontenedorera.

Mahai-zapia babestekoa: silikonazkoa, errefusa. Metalezkoa eta egurrezkoa, garbigunera*.

Mahai gaineko jokuak: errefusa.

Mahaia: garbigunera*.

Mailua: garbigunera*.

Maindirea: oihalen kontenedorera.

Maionesa: kantitate txikian, materia organikoa. Kantitate handian baimendutako gestore batengana jo.

Makillajea: errefusa.

Makillajea kentzeko diskoa: errefusa.

Makulua: garbigunera*.

Maleta: errefusa.

Malgukia: errefusa.

Mamiaren, arroz-esnearen, natillen... ontzia: ontzi arina.

Manta: oihalen kontenedorera.

Mantala: oihalen edukiontzira.

Marisko-azala: materia organikoa.

Mariskoa: kantitate txikian, materia organikoa. Kantitate handian baimendutako gestore batengana jo.

Marmelada: materia organikoa.

Marmola: garbigunera*.

Mediak: oihalen kontenedorera.

Metalezko soka: garbigunera*.

Metroa: garbigunera*.

Metxa: errefusa.

Metxeroa: errefusa.

Mikrofona: garbigunera*.

Mikrouhin-labea: garbigunera*.

Mokasina: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Moketa: txikia, errefusa. Handia, garbigunera*.

Monopatina: garbigunera*.

Motor-olioa: garbigunera*.

Motxila: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Musika-aparatua: garbigunera*.

N



Neoprenoa: oihalen kontenedorera.

Nezeserra: plastikozkoa, errefusa. Telazkoa, oihalen kontenedo-rera.

Nylona: errefusa.

O



Obra-hondakinak: garbigunera*.

Ohe-estalkia: oihalen kontenedorera.

Ohea: garbigunera*.

Oihala: oihalen kontenedorera.

Oinetako-altzaria: garbigunera*.

Oinetakoak: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Olana: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Oliontzia: metalezkoa, garbigunera*. Kristalezkoa, errefusa.

Ontzi-garbigailua: garbigunera*.

Ontzia: plastikozkoa, ontzi arina. Beirazkoa, iglu berdera.

Ontziteria: aluminiozkoa, garbigunera*. Zeramikazkoa eta kris-talezkoa, errefusa.

Oparitako papera: paperezkoa, papera/kartoia. Plastikozkoa, errefusa.

Ordainagiria: papera/kartoia.

Ordenagailua: garbigunera*.

Ordenagailuko sagu/arratoia: garbigunera*.

Ordenagailuko sagu/arratoiaren alfonbratxoa: errefusa.

Ordezko hortzak: errefusa.

Orratza: errefusa.

Orrazia: errefusa.

Orria: papera/kartoia.

Ozpin-ontzia: metalezkoa, garbigunera*. Kristalezkoa, errefusa.

P



Padera: aluminiozkoa, garbigunera*. Zeramikazkoa eta krista-lezkoa, errefusa.

Pala: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa eta egurrezkoa, garbigunera*.

Palanka: garbigunera*.

Panpina: telazkoa, oihalen kontenedorera. Bestelakoak, garbi-gunera*.

Pantaila: garbigunera*.

Papera, harategikoa, urdaitegikoa, arrandegikoa: garbia, pape-ra/kartoia. Zikina eta/edo argizariduna/plastifikatua, errefusa. Paper hutsa bada eta janariz zikinduta badago, materia organikoa.

Paperezko ezpainzapia: garbia, papera/kartoia. Janariz zikindua, materia organikoa. Bestelakoak, errefusa.

Paperezko kafe-iragazkia: materia organikoa.

Paperezko mahai-zapia: garbia badago, papera/kartoia. Janariz zikindua, materia organikoa. Bestelakoak, errefusa.

Paperezko mukizapia: materia organikoa.

Papergainekoa: errefusa.

Pareteko ordularia: garbigunera*.

Pastilla: botikara.

Patata-sarea: ontzi arina.

Patina: garbigunera*.

Patinetea: garbigunera*.

PDA: garbigunera*.

Pedala: garbigunera*.

Pegatina: errefusa.

Pelota: errefusa.

Pentsua: materia organikoa.

Pertsiana: garbigunera*.

Petardoa: errefusa.

Pettoa: oihalen kontenedorera.

Pic-nic hozkailua: garbigunera*.

Pijama: oihalen kontenedorera.

Pila: pilen kontenedorera edo garbigunera*.
Salgai izaten diren edozein dendatan ere utz daitezke.

Pilen pack-a: paperezkoa, papera/kartoaia.
Plastikozkoa, ontzi arina.

Pilula: botikara.

Pintura: garbigunera*.

Pintura-potoa: garbigunera*.

Pintzela: kantitate txikian, errefusa.
Kantitate handian, garbigunera*.

Pita: errefusa.

Pitxerra: plastikozkoa, zeramikazkoa eta kristalezkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Pixoihala: errefusa.

Pizgailua: errefusa.

Plantxa: garbigunera*.

Plastifikatutako papera: papera/kartoaia.
Forratua, errefusa.

Plastikozko baldea: garbigunera*.

Plastikozko poltsa: ontzi arina.

Platera: errefusa.

Pneumatikoa: tailerrera edo desegitelekura.

Poliesterra: garbigunera*.

Porexpana: jakien erretilua, ontzi arina.
Bestelakoak, garbigunera*.

Porexpanezko erretilua (jakiena): ontzi arina.

Post-it-a: papera/kartoaia.

Postala: papera/kartoaia.

Posterra: papera/kartoaia.

Pospoloa: errefusa.

Preserbatiboa: errefusa.

Prismatikoak: garbigunera*.

Puntzoia: metalezkoa, garbigunera*.
Bestelakoak, errefusa.

Puzzlea: papera/kartoaia.

PVC-a: ontziak eta enbalajeak, ontzi arinak.
Leihoak, garbigunera*.

PVC-ko ontziak: ontzi arinak.

S



Sagardo-upela: garbigunera*.

Sailkatzeko kuadernoa: papera/kartoaia.

Sakotontzia: garbigunera*.

Saltsaontzia: metalezkoa, garbigunera*.
Zeramikazkoa eta kristalezkoa, errefusa.

Salva-slip-a: errefusa.

Sandalia: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Sardeska: metalezkoa, garbigunera*.
Plastikozkoa, errefusa.

Sarraila: garbigunera*.

Sehaska: garbigunera*.

Silikona: garbigunera*.

Silikona-potoa: garbigunera*.

Snack-en bilgarria: paperezkoa, papera/kartoaia.
Plastikozkoa, ontzi arina.

Snack-en poltsa: ontzi arina.

Sofa: garbigunera*.

Soka: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Spray-a (ontzia): ontzi arina.

Sukaldeko papera: janariz zikindua, materia organikoa. Beste produktu batzuekin zikindua, errefusa. Garbia, papera/kartoaia.

Sukalderako tresneria: garbigunera*.

Sutarako egurra: garbigunera*.

Suziria: errefusa.

T



Tabako-kaxa: papera/kartoaia.

Tabakoa: errefusa.

Taloitegia: papera/kartoaia.

Tanpoia: errefusa.

Tanpoia jartzekoa: errefusa.

Teila: garbigunera*.

Telazko ezpainzapia: oihalen kontenedorera.

Telebista: garbigunera*.

Telefono-gida: papera/kartoia.

Telefonoa: garbigunera*.

Telefono mugikorra: garbigunera*. Salgai izaten diren edozein dendatan ere utz daitezke.

Termometroa: garbigunera*.

Terreina (barreina): garbigunera*.

Tetina: errefusa. Orokorrean, edoskitze-produktu guztiak errefu-sa dira.

Tetrabrick-a: ontzi arina.

Tinta: errefusa.

Tipp-ex-a: errefusa.

Tipula-zorroa: ontzi arina.

Tirita: errefusa.

Titarea: errefusa.

Toalla: oihalen kontenedorera.

Toner-kartutxoa: garbigunera*.

Torlojua: garbigunera*.

Toxa: garbigunera*.

Trapua: zikina eta hautsia, errefusa. Disolbatzailez bustia, gar-bigunera*.

Trizikloa: garbigunera*.

Tubularra: garbigunera*.

Tupper-ware-a: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

Txanbila: garbigunera*. Plastikozkoa eta 5l baino gutxiagokoa bada, ontzi arina.

Txankleta: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Txapela: oihalen kontenedorera.

Txarroa: plastikozkoa, zeramikazkoa eta kristalezkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Txartela (autobusekoa, trenekoa...): papera/kartoia. Plastikozkoa, errefusa.

Txeke/taloitegia: papera/kartoia.

Txigorgailua: garbigunera*.

Txiklea: errefusa.

Txikoria: materia organikoa.

Txilibitua: errefusa.

Txirbila (tratatu gabeko egurrarena): materia organikoa.

Txostena: papera/kartoia.

Txotxa: materia organikoa.

Txupetea: errefusa.

U



Ur beroaren poltsa: errefusa.

Ur-iragazkia: errefusa.

Ur oxigenatua (ontzia): ontzi arina.

Uralita: baimendutako gestore batengana jo.

Ureztailua: garbigunera*.

Urpeko betaurrekoak: errefusa.

Uztaia: kantitate txikian, errefusa. Kantitate handian, garbigunera*.

X



Xaboi-ontzia: plastikozkoa, zeramikazkoa eta kristalezkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Xaboi-pastilla: errefusa.

Xiringa: errefusa.

Xukadera: plastikozkoa, errefusa. Metalezkoa, garbigunera*.

Xurgagailua: garbigunera*.

Xurgagailuaren poltsa: errefusa.

Z



Zakua: paperezkoa, papera/kartoia.
Plastikozkoa, ontzi arina. Telazkoa, oihalen kontenedorera.

Zapata: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Zapatila: oihalen kontenedorera (poltsa batean).

Zartagina: aluminiozkoa, garbigunera*.
Zeramikazkoa eta kris-talezkoa, errefusa.

Zelo: errefusa.

Zelofana: errefusa.

Zeramika: errefusa. Mamiaren, arroz-esnearen... ontzia, ontzi arina.

Zereala: materia organikoa.

Zerra: garbigunera*.

Zerrautsa (tratatu gabeko egurrarena):
materia organikoa.

Zigarroa: errefusa.

Zigarrokina: errefusa.

Zira: oihalen kontenedorera.

Zirrindola: kantitate txikian, errefusa.
Kantitate handian, garbi-gunera*.

Zopa-ontzia: errefusa.

Zorroa: gogorra, errefusa. Bestelakoak, oihalen kontenedorera.

Zorrozkailua: errefusa.

Zozketa txartelak (loteria...):
papera/kartoia.

Zulagailua: garbigunera*.

Zulatzeko makina: garbigunera*.

Zumitza: garbigunera*.

Zuzenkia: errefusa.





Ekarpen eta larrialdi
guneak
Zonas de aportación
y de emergencia:

- Kioskoa
- Jauregalde
- Lopene-Pisbe
- Altzate auzo elkarte
- Errekalde

- 1 Kamioiaren ibilbidea
Recorrido camión 1
- 2 Kamioiaren ibilbidea
Recorrido camión 2